



Egun on denei,

Urtero bezala Mikel Zabalza eta berarekin batera atxilotutako lagunak oroitzeko eta omentzeko bilduak gara hemen.

Mikel, Idoia eta Ion oroitzen ditugu bereziki, eta unea aprobeztatzen dugu urteari begirada botatzeko eta gure lagun hauekiko, baita tortura jaso duten guztiekiko egiaz, aitortzaz, justiziaz, erreparazioaz.. aurreratzea lortzen dugun ala ez elkar hausnartzeko.

38 urte pasatu dira. Denbora asko oraindik egia aldarrikatzen ibiltzeko, justizia exijitzeko, erreparazio osoa eskatzeko. Baina tamalez egia eta justiziaren aldeko lana halakoa da.

Argi ilunak izan dira 2023 honetan.

Argia ikusten dugu Nafarroan Torturatuen sareak burutzen duen lanaren berri dugunean. Aurten, erriberaz bultzatzen ari diren ikerketak emandakoaren berri izan dugu. Lan talde zabala osatu da eta dagoeneko 56 lagun kasuak identifikatu dituzte. Izkutatuta eta ixildua zen errealitatea azaleratu dute, lagun askok haien barruan gordea zutena ateratzea, publiko egitearen urratsa eman dute. Eta hori zinez berri ona da. Haiak, biktima gisa behar dute. Guk, herri gisa egi hori behar dugu.

Jaurlaritzak ere ekimen ofizial bat egin du, Estatuaren bortizkeriaren 66 biktimei aitortza emateko. Beste urrats bat norabide onean. Halako gauzak entzun ditugu Nerea Melgosa kontseilariaren ahotik zein Juana Balmaseda batzordeburuaren ahoetatik: *“Berandu entzun dugu eta berandu hasi gara ekimenekin”, “asko falta da egiteko”,* besteak beste *“artxibo ofizialen desklasifikazioa”* edota *“ixiltasun konplizeak haustea”*. *“Autokritika”* egin behar dela diote. *“Biktimen bisibilizazioan urratsak eman behar, anesthesiarekin bukatu,.. gizarteari zor diogulako”*. Oso hitz egokiak eta beharrezkoak, txalotu beharrekoak.

Seguraski Iñigo Urkulluren ahotik entzunda indar gehiago izango zuten, irismen zabalagoa, baina gai honekiko bere konpromezuaz zalantzak ditugu. Halako une inportantea izan behar zenara berandu iritsi, amaitzen ari zela hain zuzen,.. eta ezer aipatzeko. Gainera, ekimenaren izenburua ‘Verdad, memoria, reconocimiento, garantía de no repetición’ zen. “Justizia”, izenburuan ez zen. Nazio Batuek eta organismo guztiek “egia, justizia eta erreparazioa”ren beharra azpimarratzen dute halako egoerentzat. Baina hemen ahaztu egiten zaigu omen. Zergatik? Beraz bai, informean zioten bezala “asko falta da egiteko”. Hobe esanda: ASKO FALTA ZAIZUE EGITEKO.

José Ignacio Fernández Guaza ultraeskuindarraren adierazpenak ere irakurtzeko aukera izan genuen: gerra zikinan barruraino sartuta, goardia zibilarekin zuten harreman ezin hobea aitortu zuen: “Teníamos carta blanca” zioen; eta koartelei buruz «eran nuestras casas».

Amaitzeko, Manuel Sánchez Corbí koronela, 1998an Kepa Urra torturatzeagatik kondenatua izan, eta Aznarrek indultatutako goardia zibilak, Espainiako Audiencia Nacional.aren domina jaso zuen: zilarrezko gurutzea. Honek berriz zera oroitzen digu: Euskal herritarrak torturatzea saritua dela.

Ikusten duzuen bezala, argiak eta ilunak. Halaxe beste urte batez bidean topatzen duguna.



Baina sasi guzti horien artean bidea egiten segitzen dugu eta Mikelen gaiak ere bere bidea egiten segitzen du. Ez da ahaztua eta aitortza mailak irabazten doa. Ostegunean aurkeztu den liburuak horren bidean urrats garrantzitsua da.

Iaz Denis Itxasorengana jo genuen. Harremana egin genuen eta, PSOE zein Estatu ordezkari gisa, herri honekiko duten zorra kitatzea eskatu zitzaion. Ia urte bat pasatu denean, zain gaude. Eta galdera berriz ere pausatu beharko diogu.

Esan bezala, herri honekiko zordun dira eta egia, herritarrok ezagutzen duguna, benetazkoa, egia judizial bihurtzeko bidean urratsak behar dira. Galdetu, interpelatu, eta duten zorra kitatu. Bestek beste adierazpen argiak eginez, eta une honetan torturazaileei babesa kenduz, sekretuak altxatuz. Denis Itxaso eta bere alderdikideek zor historiko bat dute.

Bukatzeko, bi urte barru 40 urte beteko dira. Alzako Mikel Zabalza Herri Ekimenak modu berezian lantzeko asmoa du eta denon parte hartzearen bidez ideiak ekartzea bultzatuko du une inportantea bihurtzeko. Beste mugarri bat bide luze honetan.

Badugu beraz beste erronka bat, denon laguntza eskatuko duena. Hurrengo hilabeteetan parte hartze dinamika bat bultzatuko dugu. Alzatar herriak berriz ere hor egongo da, Mikel eta bere lagunak oroitzen, memoria eta aitortza lantzen, egia zabaltzen eta justizia exijitzen.

Bidea ez da eten, ezta etengo ere.

Gora Mikel !!!

Torturarik EZ !!!